

«ZAKURRAK NON MINA HAN MIHIA»

Badakit euskal aldizkarietan eta, maiz jo ohi dela betiko le-
lora. Euskararen kezka, nahi genukeen baino sarriago gainezka-
tzen zaigu. Bere izpiritua galtzeaz duen herri zahar eta txiki ho-
nen intziria, ondoeza barnean ezin ito, ezin isildu.

Gure kulturaren gaubelan baileuden, erostaka iharduten
dute zenbaitek. Gaubelak, erostak ahaztu betiko eta aire freskoa-
go, itxaropentsuago eta alaiagoa nahi eta behar genuke. Baina
«zakurrak non mina han mihia»... eta zauri hori mihizkatzera jo
behar behin eta berriro...

Euskarazko irakaskuntza geure kulturaren udaberritzat joz
itxaropenezko amets goxoak egin genituen. Ikastolak salbatzaile
gisa zetozen, herri abertzale finak izerdiz eta malkoz ia ezereze-
tik sortuak. Zaharrenek zilarrezko eztaiak ospatu dituzte dagoe-
neko, edo eta laster ospatzekotan dira. Hala ere ametsak erreali-
tatea baino goragotik ibili ohi dira ia beti. Edo eta atzekoz au-
rrera esanik, egia motzago, arruntago, gordinago dela aitortu
behar. Ez hain txairoa eta polita. Amets horietariko asko, udaz-
keneko orbelak bezala, erori egin ohi dira; beste batzu, berriz,
murriztu nahiz ustel geratu. Mintegian, landare jori eta gurarier-
ordez, soiluneak! «Ez ote genuen, bada, hazi ona erein...?»

Euskara landu eta batuaren beharra

Begirada atzera bihurtuz, lehen ikastolak, gerra osteko lehen ikastolak abiatu eta laster, euskara landu eta batuaren beharraz jabetu zen euskaldungoa.

Haurrak zeuden batez ere asmo horien ikusmiran, baina baitan helduen euskalduntze eta alfabetatzea ere. Xabier Peñak, Jon Oñatibiak eta abarrek baziharduten jadanik lan txalogarri horretan. Geroxeago edo garai beretsuan Jon Gotzon Etxebarriak, berau ere euskaldunberrien aitzindarietarikoa izanik, langintza berari ekin zion horretarako liburuska egokiak argitaratuz San Antongo katekesiaren babespean. Beste horrenbeste egin zuen eta orain ere, etsi gabe, horretan dirau J.A. Retolazak Kili-Kili ekintzaren bidez. Patxi Altuna ere hor agertu zitzaigun bere «Euskara hire laguna» metodoarekin. Rikardo Arregui zena izan zen A.E.K.ren lehen bultzatzaileetarikoa. Geroztik ekintza horietan aritu direnak aipatu soilki egiteko ere aldizkari honen orriak eta orriak beharko genituzke.

Euskararen irakaskuntzan hainbeste andereño, irakasle eta gurasoen lan isila dago tartean, baina hala ere, Imanol Berriatua-
ren izena aipatzeke uzteak ez luke barkaziorik. Idazle belaunaldi berria ere kementsu zetorren, ordurarte jorratu gabeko arloetan barneratzera ausartuz. Akatsak akats, belaunaldi honen bultzada benetan bortitza eta ezinbestekoa izan da.

Gerra aurreko abiada, gudu anker hark zakarki eten ez balu, noraino hel zitekeen aieruak entzuten ohituak gaude adin handiagokoen ahotik eta hauetariko askok euskara lorrina, traketza, euskalgaiztoa eta erdarakadaz zipristindua erabiltzearena egozten diete belaunaldi gazte honetakoei (orduan gazte, orain gazte-zahar edo erdi bidean). Hauek, berriz, garbizalekeria, txokokeria edo euskalki eta ohizko baserri girotik irtetzeko ausardiarik eza, epelkeria hitz batez euskararik gabeko «abertzale» izan nahiaren kontraesana Bilbo aldean batez ere. Gogoratu bes-

terik ez dago euskara gabeko «Euskadi»zale hauen epelkeria salatzeko jarri zitzaizkien mesprezuzko gaitzizenak: «Baskoak», «Abertxales» eta zenbaiti haragi bizian zait egin eta bereziki mingarri izan zitzaien «Behin batean» izeneko Xabier Kintanaren ipuina.

Salakuntza guzti hauek, bai alde batekoak eta bai beste-koak, zenbait kasutan barkagarri badira ere, funtzean egiazkotzat ditut nik neuk.

Arantzazuko batzar ospetsu hartan leher egin zuen bi belaunaldien arteko gatazkak. Euskara batu standarda, idazle klasi-koetan oinarritua, ikuspegi nazionalez ehoa, bizitza modernora-ko egokitua eta batua, «edonorakoa» zen batzuen asmoetan. Eus-kara «betikoa», ohizkoa, herritarra, berezko doinu eta graziduna, ortografia zaharrekoa («h»rik gabea) zen besteen gogokoa... eta burruka-sua hortxe piztu zen, ideologia ezberdinak eta belau-naldi-gatazka ere su horren iziogarri zirelarik.

Arazo honek eztabaida zantzua dakar hasiera-hasieratik. Orain, 20 urte edo iragan ondoren, hizkuntzari soilki gagozkio-la, bitasun honetan segokeen tirabirak aspaldi gauditurik behar zukeela dirudi. Baina, itxurak itxura, gailen geratuz doan euskara standardari muzin eginik, eurenean egoskor eta teman diraute-nak ere badira bazterretan. Batzuk ageri-agerian eta beren-beregi. Beste zenbait, ordea, ezjakinean.?

Beste orain arte esan gabekorik nekez jaulkiko zaigu baina, saia gaitezen auzia pixka bat argitzen.

Euskara batua esatean, standarda esan nahi dugu. Tokian tokiko hizkeren bereizgarriak, elkarrengandik urrun gaitzakee-nak alde batera utziz, forma bateragarriak, gehiengoarentzat ba-liagarri direnak azpimarratu eta jasotzen dituenak. Hori egitean, hizkuntza pixka bat gezatu egin ohi da ezinbestean. Kolore eta zapore motelagoko bihurtzen da; ez hain bizia eta freskoa. Ekintzak kontrolpean ezartzen, neurtzen, ukitzen gizona bera

sartzen den guztian, artifizial kutsua eman ohi dio ia beti, berezkotasun, joritasun eta graziaren kaltetan. Gure kasuan euskara bizia, euskaldunoi itzarririk eta ametsetan dariguna, han eta hemen ahorik aho, hitzetik hortzera dabilena ez da oso-osoki jasotzen euskara standard horretan, baina funtsean hortze izan behar du muina, bestela gureak egin du! Beste aldetik erabilgarriago, hedatuago eta oraingo beharrianetarako egokiago bihurtzen da, zatikatua, sakabanatua izatea kulturarako eragozpen bait da. Batua eta finkoa izateak izen ona ere ematen dio hizkuntzari, kultura mailako hizkuntzen ildoan ezarririk.

Euskara herritarra esaterakoan, zer esan nahi da? Nongoa? Zein herritakoa? Herri-kutsua, herri-sena etab. aipatzen dira, baina horiek hitz kutsuak dira. «Herritarra» esatean, haranez haran, herrialdez herrialde sakabanatzen eta bereizten diren hizkerrez ari bagara, hori dialektologia-ikerketak burutzeko bai, baina bestelako kultura bideetarako ez litzateke gauza. «Herritarra» esatean, tradizioz literaturan landu diren euskalkiak adierazi nahi badira, hor ere, nolabait, euskara batuari egotzen zaion artifizialkeria badagoela esan behar. Hor ere giza-ekintza bitarteko dela lortu da euskalki barneko batu hori. Euskalki literarioak ere, berezkotasunaren kaltetan gizakiak hartaraturik, moldaturik, kontrolpean ezarririk sortu dira.

Argi dago, beraz, irakaskuntzarako, komunikabideetarako, literaturarako euskarak egokitua, landua, giza-kontrolpean ezarria izan behar duela. Hitzetik hortzerakoa, berezkoa, iturritik harakoa, nabarduraz beteriko hizkera bizia behar du izan oinarri; baina ez dagoen-dagoenean, horrela ez bait luke kultura-moldeetan sartzerik.

Dena dela hizkuntza standarda gaur eguneko preminetarako beren-beregi sortua eta Euskaltzaindiak hobetsia izan arren, edozein euskalki literario ortografia bateratuaz erabiltzea zilegi denik ezin uka. Areago oraindik irakaskuntzan batipat pedagogiaren eta zuhurtasunaren arabera erabaki beharko litzateke auzi

hau. Honekin zera esan nahi nuke: irakaskuntzan, pedagogiaren arabera, euskara menderatu ahal izateko biderik zuzenenera jotzea onena. Euskara betidanik dakiten haur nahiz helduen kasuan, euskalkitik abiatzea dirudi egokiena, gero poliki-poliki baturantz jotzeko.

Euskararik ez dakiten haur nahiz helduak euskalduntzeko, berriz, hasiera-hasieratik euskara batura jotzea dirudi biderik zuzenena. Hala ere euskalki hutsarekin edo eta euskara batu hutsarekin geratzeari hankamotz geratzea deritzot. Batetik edo bestetik herren egingo luke eta kulturadun, euskaldun jantzia eta ikasia izan nahi lukeenarentzat ez da aski. Euskalkitik abiatzen denak, euskara batua ere menderatzea lortu behar du; era berean euskara batutik abiatzen denak, gutxienez berari dagokion lurraldeko euskalkia menderatzea. Horra heldu arte, nire eritziz, ez da euskararekiko maila gainditzen.

Euskararen aldeko burruka

Euskara gabeko «Euzkadi» zaleak aipatu ditut arestian, baina garai batetan euskaltzale-garra zeriela bazterrak kiskali beharrean jo eta ke ari ziren asko, gaur egun administrazioko bulegoetan ikus daitezke dotore jantzirik, gorbeta eta guzti erdaraz parra-parra mintzatzen edo eta behintzat erdaraz egiteko engararik ez dutela.

Lanpostu ona, bizimodu eroso tentagarriak dira beti ere; Ameriketara joan zen hark aspaldi esana zuen, bai:

«Txin-txin / txin-txin!

diruaren hotsa...

haretzek ematen dit, maitea,
bihotzean poza».

Hau dela bestea dela, burrukan porrot eginik, bizimodu erosoari emanak ikusten ditugu noizbait euskaltzale suhar izan-

dako asko. Beste zenbaitek, zorionez, hortxe diraute lehengo lepotik burua, kementsu eta tinko, urteetako burrukan etsi gabe, erosotasunari muzin eginik.

Diktadurapeko urteen tunela iragan ondoren, guztia ederrago, geure helburuak eskuragarriago ikusten genituen. Baina euskararen berbizkunderari dagokionez, ez dago amets politegirik egiterik. Aginte politikoa euren esku dutenak abagune ezin hobe alferrik galtzen ari dira. Diziplina ezberdinetan ongi jantziak, jende ikasia, jakintsua: legeetan, soziologian, ekonomian... hizkuntzak ere hiru, lau, bost edo gehiago jakingo dituzte, baina horien artean euskaraz bai? Tamalgarria da hau aitortu beharra, baina politikariek, salbuespenak salbuespen, iruzur egin diote herri euskaldunak beraiengan jarria zuen itxaropenari... Arrotz gertatzen zaizkigu eta herri xehearren ideal abertzaleetatik oso urrun.

Berrito ere herri-ekintzaren ondorioz etorri beharko du euskararen zuzpertzak. Diktadurapean hala gertatu zen eta orain ere hala dirudi. Herri fin eta leialaren lepora etorriko da zama hau, politikari eta gorbetadun jaun ohoretsu horiek euren eztabaida eta hitzaldi antzuetan demokrazi plantak egiten ari diren bitartean. Demokrazia delako hori ez zaigu batere sinesgarri hiltzeaz dagoen etxeko hizkuntza bertan behera utziz erdaraz berritsukerietan ari zaizkigulako.

Sortu dizkiguten euskarazko gauza handien artean EITB aipatzen da eta benetan merezi du aipatzea. Behartsuaren etxean, baina, hori ere ez da aski, ia guztia bait dago egiteko. Gainera ETBri buruz balegoke zeresanik: gaztelania lurra janez ari zaio eta gaur egun ETB telebista euskalduna barik elebiduna dela esan genezake. Egunkari euskaldun baten zain ere irrikaz dago euskaldungoa, baina ez zaio heltzen gogo hori egia bilakatuko den eguna. Atxakiak, konpondu ezinak, luzamenduak... Noiz arte?

Herriak, garai latzagoetan ere hala iraun zuen eta orain-
goan ere tinko eta euskaldun iraungo duen itxaropena dut.

«Bateginik», «Korrika», «Ibilaldia», «Kilometroak», «Araba
euskaraz», «Nafarroa oinez», «Herri urrats». Horra hor herri eus-
kaldunaren iraun nahia, euskaraz bizi izateko gogo itzalezina.
Urtero han eta hemen egin ohi diren euskal gogoaren adieraz-
penak, baina nik eguneroko adierazpenak nahiago: arrotzen na-
hiz bertoko erdaltzaleen interferentziarik gabe euskaraz bizi ahal
izatea.

Luis Baraiazarra